

IRAKASKUNTZA-GIDA

2018/19

Ikastegia

231 - Psikologia Fakultatea

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa

Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25053 - Komunikazioa Euskaraz: Psikologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN

Psikologia graduko ikasleek hizkuntza eta komunikazioa ondo mederatzeko premia dute, bai gradua egin bitartean bai ikasketak amaitu eta lan-munduan barneratzean. Gradua egiten ari direnean, batetik, Gradu Amaierako Lana idazteko eta aurkezteko beharko dute euskaraz zuzen eta era egokian aritzeko gaitasuna; bestetik, nahitaezko praktikak egiten ari direnean, oso baliagarri izango zaie euskaraz argi eta txukun komunikatzeko gaitasuna. Gradua amaitzen dutenean, Psikologia ikasleek askotariko bideak hartuko dituzte: osasunaren alorra, hezkuntzarena, enpresa mundua, akademia eta ikerketa, eta beste hainbat. Horietan guztietan eskatuko zaie hizkuntza ondo menderatzea eta era argian eta zehatzean komunikatzeko gai izatea. Beraz, berebiziko garrantzia du Psikologia ikasleentzat idatzizko eta ahozko komunikazioan, bietan, trebatzeak.

"Komunikazioa euskaraz: Psikologia" (KE) irakasgaia graduaren laugarren mailan eskaintzen da, lehenbiziko lauhilekoan, eta "Euskararen arauak eta erabilerak" (EAE) irakasgaiaren garapena da nolabait, zeina gradu, maila eta lauhileko berean eskaintzen den. Hautazko irakasgaiak dira biak. EAEn, hizkuntza zuzen eta era egokian erabiltzeko oinarritzko tresnak irakatsiko zaizkio ikasleari, eta arreta jarriko zaie euskaraz psikologiari buruz idaztean sortzen diren trabei eta arazoei. Eskuartean dugun irakasgaian, KEn, gehiago sakonduko da hizkera teknikoan, psikologiako terminologian, testu-sorkuntzan, eta psikologiaren alorrean hizkuntzak dituen premia berariazkoetan. Ahozko eta idatzizko hizkuntza, biak landuko ditu ikasleak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Psikologia graduko ikasleek garatu behar dituzten gaitasun eta trebetasun batzuk landuko ditugu Komunikazioa Euskaraz irakasgaian, eta gaitasun horietako bakoitzak garrantzi maila jakin bat du irakasgaiaren barruan:

1. Arretaz entzutea espezializazio maila desberdinetako solaskideei eta jasotako informazioa egokiro ulertzea (entzuketa arretatsua). (% 5)
2. Informazio eta datu esangarriak biltzea, kritikoki interpretatzea eta sintetizatzea espezializazio maila desberdinetako hartzaileei informazioak eta iritziak helarazteari begira. (% 10)
3. Modu eraginkor eta argian komunikatzea, ahoz zein idatziz, espezializazio maila desberdinetako hartzaileekin euskara zuzen eta egokia erabiliz. (% 40)
4. Psikologian ohikoak diren testu-generoen egitura eta erabiltzen dituzten hizkuntza-baliabideak aztertzea eta erabiltzea, zalantzak argitzeko Interneten eskuragarri dauden tresnak eta baliabideak erabiliz. (% 40)
5. Euskarak psikologiaren munduan duen rola ulertzea eta alor horretako erregistroak (adierazpideak, terminologia, eta abar) garatzeko esparruko profesionalek duten erantzukizunaz jabetzea. (% 5)

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

EGITARAU TEORIKOA

1. GAIA: Komunikazioaren oinarriak: komunikazio espezializatua:

- 1.1. Testua komunikazio-unitate linguistikoa: testuinguratzea, egituratzea eta testuratzea
- 1.2. Testuen kalitate linguistikoa
- 1.3. Komunikazio espezializatuaren bereizgarriak
- 1.4. Testu orokorrak eta testu espezializatuak
- 1.5. Ahozko testuak eta idatzizko testuak

2. GAIA: Osasun arloko testuak: testu prototipikoen bereizgarri linguistikoak:

- 2.1. Parametro pragmatikoak eta psikologiako testuak
- 2.2. Psikologiako testuetan maiz agertzen diren zenbait diskurtso-eragiketa
- 2.3. Psikologiako testuen azterketa

3. GAIA: Osasun-arloko terminologia eta fraseologia:

- 3.1. Testu espezializatuak, terminologia eta fraseologia
- 3.2. Izen elkartuak eta idazkera
- 3.3. Izen-sintagma espezializatuaren egitura
- 3.4. Aditzen hautapena testu espezializatuatan

EGITARAU PRAKTIKOA

Irakasgaiaren alderdi praktikoa hiru proiektu praktikoren inguruan antolatuta dago.

A. proiektu praktikoa: Komunitate akademikoko askotariko kideekin komunikatzea

Helburua: komunikazioaren oinarriak lantzea.

1. praktika: eskabidea

2. praktika: e-maila

B. proiektu praktikoa: Osasun-kanpaina bat prestatzea

Helburua: aditu ez direnei zuzendutako ahozko eta idatzizko testuak sortzea.

3. praktika: gaia eta hartzaileak aukeratzea eta informazioa bilatzea

4. praktika: ikaskideei azaltzeko aurkezpena prestatzea

5. praktika: osasun-kanpainarako diptikoa planifikatzea eta egitea

6. praktika: osasun-kanpainarekin lotutako dibulgazio-hitzaldi bat prestatzea

C. proiektu praktikoa: komunikazio zientifikoa

Helburua: testuak kanalera (idatzia vs ahozko) eta espezializazio mailara egokitzea.

7. praktika: artikulua espezializatu bateko terminologia bereiztea, aztertzea eta euskarazko ordainak bilatzea

8. praktika: artikulua espezializatuaren zati bat euskaratzea

9. praktika: kongresu baterako ahozko komunikazioa prestatzea

10. praktika: artikulua espezializatutik ateratako informaziotik abiatuta, berri labur bat idaztea Elhuyar aldizkarian argitaratzeko

METODOLOGIA

1. Ordenagailu-praktikak

Ordenagailu gelan 10 praktika egingo ditugu, hiru proiektu praktikotan antolatuta. Praktika horiek binaka egingo dituzue. Praktikak egin ahala, irakasleak iruzkinak egingo dizkizue emaitzak hobetzen joateko. Proiektu praktikoko bakoitzaren bukaeran txosten bat aurkeztu beharko duzue irakaslearen jarraibideen arabera. Praktika-txosten horien kalifikazioak hartuko dira kontuan ebaluazioan.

2. Eduki teorikoak

Eduki teorikoak jarduera praktikoekin lotuta egongo dira. Jarduera horiek egokiro egiteko aplikatu beharko dira, hain zuzen ere, eduki teorikoak. Eduki teorikoez ondo jabetzen zoaztela egiaztatu ahal izateko, gai bakoitzaren hasieran zehazten da gai horrekin lortu behar ditugun helburuak. Bukaeran, eduki horiek egiaztatze test ariketak egingo dira, bukaerako ebaluazioan kontuan hartuko direnak.

3. Eskolatik kanpoko lanak

Zenbait jarduera eskolatik kanpo osatu beharko dituzue: ariketak, irakurgaiak, proiektuetan garatzen zoazten lanak, ahozko aurkezpenen saioak e.a.

4. Tutoretzak

Komenigarria da ikasleek tutoretzak erabiltzea irakasleekin aurrera daramatzaten lanetan aurkitzen dituzten oztopoak eta aztertzen dituzten aukerak hitz egiteko eta argibideak bilatzeko.

5. Egela plataforma

Egela plataforma erabiliko dugu irakasgaiaren antolakuntza, ikasle-irakasleen arteko komunikazioa, autoebaluazioa eta irakasgaiaren jarraipena errazteko.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30		10		20				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	25		45		20				

Legenda:

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 15
- Ahozko defentsa % 30
- Banakako lanak % 15
- Portfolioa % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasgai honek ebaluazio jarraitua izango du.

Hiru elementu hartuko dira kontuan:

• Ordenagailu-praktiketako hiru txosten (% 40)

• Ahozko aurkezpenak (% 30)

• Hiru proba indibidual: testa eta terminoen azterketa, testuen sorrera eta testuen itzulpena (% 30)

*Ebaluazio jarraituari uko egitea

Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek, edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (ebaluazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 asteen barruan (1.-9. asteetan). Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

*Ohiko deialdiari uko egitea

UPV/EHUko Ebaluaziorako arautegiko 12. artikulua araberako, ohiko deialdiari uko egiteko, nahitaezkoa da lauhilekoa bukatu baino hilabete lehenago irakasleari idatzi bat helaraztea ukoa jakinarazteko.

AZTERKETA:

Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, ahozkoan erabiliko diren diapositibak azterketa baino bi egun lehenago igo beharko dira egelara, eta azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Lan esperimental bat azaldu beharko dute. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte.

Hona hemen proba desberdinen balioa:

1. Testa (% 15)
2. Terminoen azterketa linguistikoa (% 15)
3. Itzulpena (% 20)
4. Idazlana (% 20)
5. Ahozko aurkezpena (% 30).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketan eta ezohiko deialdian irakasgaiaren % 100 azterketa bidez ebaluatuko da.

Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko.

Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, ahozkoan erabiliko diren diapositibak azterketa baino bi egun lehenago igo beharko dira egelara, eta azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Lan esperimental bat azaldu beharko dute. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte.

Hona hemen proba desberdinen balioa:

1. Testa (% 15)
2. Terminoen azterketa linguistikoa (% 15)
3. Itzulpena (% 20)
4. Idazlana (% 20)
5. Ahozko aurkezpena (% 30).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren zereginak aurrera eraman ahal izateko materialak dira irakasleak eGela plataformaren bitartez ikasleei helarazten dizkienak eta Interneten eskuragarri dauden zenbait kontsulta-baliabide: hiztegiak, datu-base terminologikoak, testu-corporak, hizkuntza-arauak, estilo-liburuak ...

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHUko Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:

<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>

HAMILTON, H.E. eta WEN-YING, S. CH (ed.) (2014) The Routledge Handbook of Language and Health Communication. Routledge: Londres eta New York

SERÉS, E., ROSIH, L., BOSCH, F (koord.) (2010) Presentaciones orales en biomedicina. Aspectos a tener en cuenta para mejorar la comunicación. Cuadernos de la Fundación Dr. Esteve nº 20. Barcelona

Gehiago sakontzeko bibliografia

- BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Peter lang: Berna
- CABRÉ, M.T. (1993) La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones. Ed. Antártida
- CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Graó: Bartzelona
- ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMAre estilo-liburua
- EUSKALTZAINDIA (1986) Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak
- EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera
- GOTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Peter Lang: Berna
- GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (1998) La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico. Gredos. Madrid
- GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros. Burgos
- GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2005) El lenguaje de las ciencias. Gredos. Madrid
- ODRIOZOLA, J.C. (koord.) (1999) Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan. EHUko Argitalpen Zerbitzua
- UZEI (1982) Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera
- ZABALA, I. (1995) "Aditzen hautapena euskara teknikoan" Ekaia 3: 123-134
- ZABALA, I. (koord.) (1996) Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa. EHUko Argitalpen Zerbitzua
- ZABALA, I. (1997) "Argumentu-harremanak eta eremu-harremanak: izenondo erreferentzialen euskal ordainen bila" Nazioarteko terminología Biltzarra. Donostia: UZEI-IVAP
- ZABALA, I. (2000) "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan" Ekaia 12: 146-166
- ZABALA, I. (2000) "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak" Ekaia 13: 105-129

Aldizkariak

- Elhuyar aldizkaria <http://aldizkaria.elhuyar.eus/>
Uztaro <http://www.uztaro.eus/>
Gogoa <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Gogoa/index>

Interneteko helbide interesgarriak

- www.euskaltzaindia.eus
<https://hiztegiak.elhuyar.eus/>
<http://www.ehu.eus/ehg/zehazki/>
<http://www.euskadi.eus/euskalterm/>
<http://hiztegia.net/>

OHARRAK

Irakasgai hau aurrera eramateko, ikasleek ahozko eta idatzizko euskara ulertzeko eta euskaraz idatziz eta ahoz erraztasunez komunikatzeko gaitasuna izan behar dute.